

*Gizarte Hezkuntzako
Praktiken Koaderno*

Practicum II

Gida eta oharren liburua

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco

AURKIBIDEA

Sarrera: “Koaderno honen erabilera eta edukia”	5
I. Practicum II: helburuak eta lan-proposamena.....	9
• Practicum II ikasgaiaren xede nagusia.....	11
• Practicum II ikasgaiaren helburuak.....	13
• Lan-proposamena.....	15
II. Tutoreen zeregina.....	19
III. Practicumaren ebaluazioa.....	23
• Ebaluazioa prozesu gisa.....	25
• Practicum II ikasgaiaren ebaluazioa.....	25
IV. Practicum II ikasgairako tresna baliagarriak: behaketarako eta oharrak jasotzeko gidak.....	29
• Behaketarako eta oharrak jasotzeko gida-tresnak emateko arrazoia eta zentzua.....	31
• I. Zure erakundea eta lan-esparrua behatzeko gida.....	33
• II. Zure gogoetak biltzeko gida.....	37
• III. Zure autoebaluaziorako gida.....	39
• IV. Unibertsitate Eskolan eta erakundeetan lan-proposamena eta tutoretza ebaluatzeko gida.....	41
Eranskina: Practicumaren lan-proposamen orokorraren oinarri diren gogoeta eta irizpideen laburpena.....	43
Oharren liburua	49

Sarrera:

“Koaderno honen erabilera eta edukia”

Koaderno honek Practicum II ikasgaiari buruz jakin

behar duzun guztia ezagutzeko aukera emango dizu. Bestalde, praktika-aldiaren lehenengo urtean egindako lana eskura izateko bidea eskainiko dizu, bigarren urte honetan horren beharra duzunean. Oharrak jasotzeko eta, aldi berean, Practicumaren edozein alderdiri buruzko kontsultak erraz egiteko aukera ere emango dizu.

Dokumentu honetan Practicum honen xede nagusiaren azalpena aurkituko duzu: helburuak, lan-proposamena, tutoretza-lana eta ebaluazio-sistema. Horrez gain, aurreko Practicumean erabilitako gidak berriro agertzen dira hemen, une honetan ere erabilgarriak izango baitira murgilduta zauden gizarteko errealitatearen eta zure prestakuntza-prozesuaren azterketa kritikoa egiteko.

Azkenik, “Eranskinean” proposamen honen aukeraketa eta lanketa zuzendu duten gogoeta eta irizpideen laburpena berriro biltzea komenigarri iruditu zaigu. Bere garaian esandakoa gogoratzuz, behin eta berriro eztabaidatu behar den gaia dela uste dugu eta, horrez gain, planteatzen denaren zentzua ulertzeko ere lagungarri izango da.

Koaderno honen amaieran “oharren liburua” duzu. Bertan, egindako lanari buruzko oharrak jaso ahal izango dituzu.

Ekin, beraz, zure bideari... Baina gogoratu Carmen Martín Gaiteren hitz hauek: “el que lleva un designio preconcebido y obsesivo no se fija en el camino que le lleva a la cosa que busca. Hay casos en que está más justificada que en otros esta obnubilación. Situaciones límites. Si uno está esperando a un compañero con el que va a atracar un banco toda la atención la tiene hipotecada en acechar su aparición por una de las bocacalles, no es momento para ponerse a mirar las flores de un escaparate. Pero no vamos a ir siempre por la vida como atracadores de bancos. Vamos, digo yo.”¹ (*Lo predeterminado*. Carmen Martín Gaiter)

¹ Carmen Martín Gaiteren aipuak ez ditugu itzuli, jatorrizko bertsioa mantentzea interesgarria iruditu zaigulako.

I. Practicum II: helburuak eta lan-proposamena

- Practicum II ikasgaiaren xede nagusia
- Practicum II ikasgaiaren helburuak
- Lan-proposamena

No podemos empeñarnos en ignorar las estridencias de lo exterior, al chocar contra el endeble alijo de opiniones salvaguardadoras a ultranza del caos y el conflicto.

Sólo contando con las sorpresas que nos puede dar el mundo, aceptando su contradictorio fluir, estas mutaciones mismas nos ayudarán a mantener puro el deseo infantil de mirar para entender, abierta la sed de seguirse preguntando siempre: ¿Por qué?

(Carmen Martin Gaité)

Hizkuntza ez da pertsonok ideiak adierazi eta komunikatzeko baliabide bat soilik, jendeak elkarrekin pentsatu eta ikasteko baliabidea ere bada

(Neil Mercer)

Practicum II ikasgaiaren xede nagusia zure lanean kokatzen hastea da:

zure burua Gizarte Hezkuntzaren arloak biltzen duen lan-esparruren batean gizarte-hezitzaile gisa ikustea. Esperientzia hori besteekin bizitzea ere lortu nahi dugu, egiten duzunari buruz eta sentitzen duzunari buruz pentsatzea eta pentsatzen duzuna besteei adieraztea. Egin dezagun aurrera: zurekin eta zure ikaskideekin Practicum I ikasgaiari hasitako eta garatutako ildoari jarraitzea proposatzen dizugu. Besteekin batera pentsatzea, gogoeta egitea, gure beldurrak eta zalantzak adieraztea, egin behar denari eta egiteko moduari buruz ditugun ideiak konparatzea, gure lanari buruzko argudioak ematea, horiek guztiak oinarrizko ideiak iruditzen zaizkigu hautatu duzuen lanbide honetan lan egin ahal izateko.

Egiten ari garenaz edo gure begiradak besteei edo bizi ditugun egoerei buruz ikusten duenaz pentsatzen duguna ez da ezkutatu behar. Gure iritzia adieraztea argigarri izan daiteke, “diskurtsoaren zulo beltzak” antzemateko lagungarri izango da, besteentzat ere lagungarri izango da, errealitateari buruzko beste ikuspuntu batzuk ikusten dituztelako, besteei beren iritziak emateko eta beren ideiak adierazteko aukera ematen die eta, hala, elkarrekin garapen pertsonal, profesional eta instituzionalerako prozesu geldiezina eraikitzeke eta sortzeko aukera izango dugu. Epe luzera begira, lanean ari garen erakundeetan egiten badugu, erakunde horren garapena bultzatuko dugu, guk eraikitako ideia horietako asko martxan jarriko baitira agian.

Azken batean, gizarteko errealitateetan behatzeak eta lan egiteak bi alderdi izaten ditu. Horietako bat norbanakoarena da; zuk egiten duzuna da: prestatu, aztertu. Horretarako kontzeptuak, prozedurak eta lanarekiko jarrera beharrezkoak dituzu: ikusten eta entzuten dituzun gauzak idatziz jasoko dituzu, aztertu, erabili edo baztertu egingo dituzu, zorrotz jokatu behar duzu, beti “besteen” iritziekin edo testuekin egiaztatuko dituzu. Bestea taldearena da: lana egiteko moduarekin, harremanekin eta harreman horiek ezartzeko moduarekin zerikusia du. Horretarako, harremanak, ideiak, lanerako plana edo beste edozein zeregin besteekin bizitzeko, elkartzeko, arrazoitzeko eta eraikitzeke tokiak eta moduak behar dituzu.

Practicum I ikasgaiari lanbide-praktikaren bideetatik hasi zenuen bidaiaren bigarren etapa honetan, bide horietan barrurago joko duzu, eta zure lanean erabateko mugarria ezarriko duten gauza horiek Xesperientziak deitzen ditugunakX biziko

dituzu. Bidaia inizatiko guztietan bezalaxe, bidaian behar duzun laguntza emango dizun jende asko aurkituko duzu (unibertsitateko nahiz zure erakundeko tutoreak, ikaskideak).

Practicum II proposamenean erreferentziazat hartuko ditugun helburuak ondorengoak dira:

- Gizarte Hezkuntzaren mundua ikertzea kontzeptuei eta esku hartzeko moduei dagokienez eta, bestalde, gizarte-hezitzaileek lan-esparruan duten funtzioa aztertzea.

- Lanean ezagutuko ditugun populazioen sentimenduak, benetako beharrak, jarrerak eta jarduketarako aukerak sakontzea eta praktikaren bidez garatu den ezagutza teoriko-praktikoa lantzea; hau da, erakundeetako programetan parte hartzen duten pertsonen eta profesionalen mundu kulturala (balioak, arauak...) ulertzea.

- Lanean arituko garen taldeekin esku hartzeko prozesuan jarrera etnografikoa garatzea.

- Eguneroko lanean parte hartzea, diseinatuz, bileretan parte hartuz, ekintzei buruz gogoeta eginez eta gizarte-ekintzako subjektuekin esku hartuz.

- Eguneroko ekintzak baloratzea, aldaketak jasoz, aztertuz eta ezarriz.

- Ikerketa-espiritua izatea, etengabe bilatuz, galdetuz, ondorioak atereaz eta bilatzeko bide berriak landuz.

- Hezkuntza-egoera guztietan datuak biltzeko prozedura zorrotzak erabiltzea.

Practicum II honetarako planteatzen ditugun helburuek Gizarte Hezkuntzaren baitan **izateko, egoteko eta jokatzeko modu** batekin zerikusia dutela ohartuko zinen. Lan egiteko modu aktiboa, lankidetzan oinarrituta egongo dena eta etengabe bilatzen arituko dena.

Practicum II honetarako proposamena honela zehazten da:

Mintegiaren lehenengo bilera: bilera hau zentro honetako tutorearekin eta mintegiko gure taldearekin egiten da. Bertan proposamen honetara hurbilduko gara, ezagutu eta aztertu egingo dugu. Gure ikaskideak non dauden eta beren esperientzia zein lan-esparrutan garatuko duten ere ezagutuko dugu.

Beraz, mintegietan parte hartu beharko dugu. Esparru honetako lana guztien artean egin beharreko ikaskuntza moduan uler dezakegu. Elkartzeko, trukatzeko eta iritziak aldatzeko testuinguruetako bat da. Lehenengo bilera honetatik aurrera hurrengoak aurretik prestatu beharko dituzu eta taldean kontatu eta/edo planteatu nahi duzuna idatziz jasoko eta laburtuko duzu.

In situ. Jada erakundean, elkartean edo instituzioan zaude. Proposatzen dizkizuten jarduera eta proiektuetan parte hartzen duzu. Zure tutoreak esandakoa egiten duzu eta behar duzunean laguntza eskatzen duzu. Besteekin harremana duzu. Entzun egiten duzu, galdetu egiten duzu, galderak, zalantzak eta ideiak sortzen zaizkizu, dokumentuak irakurtzen dituzu, jendearekin hitz egiten duzu; kontsulta bibliografikoak egiten dituzu, komunikabideetatik interesgarria iruditzen zaizuna hartzen duzu. Hori guztia idatziz jasotzen duzu. Tarteka denbora apur bat hartzen duzu ezagutu dituzun gauzak eta zure iritziak idatziz jasotzeko. Tarte horietako bat hurrengo mintegia prestatzeko erabiliko duzu: zure oharrak antolatu behar dituzu, zuk ulertzeko moduan jarri, gero mintegietan horietan oinarrituta parte hartu ahal izateko. Bilera guztiak prestatzea funtsezkoa izango da, zer esan behar duzun eta zer planteatu nahi duzun gogoratzeko...

Mintegi honetan gure behaketen eta gogoeten emaitzak trukatzeko ditugu. Hala, bada, zuek eta gainerako partaideek beste eremu eta erakunde batzuetako egoerak ezagutuko dituzue, beste gogoeta batzuen emaitzak entzun eta eztabaidatuko dituzue.

Erakundean zure tutorea izango den pertsona ezagutuko duzu eta lehenengo urratsak ematen lagunduko dizu, errealitate horretara hurbilduko zaitu eta errealitatearekin harremanetan jarriko zaitu. Agian aurreko urtean bertan izan zinen eta jada pertsona hori ezagutuko duzu, baina beharbada erakunde berri batera joango zara. Dena dela, garrantzitsua izango da hasieratik dokumentu hau bere esku uztea eta egingo dituzun zereginak eta emango dituzun urratsak argi izatea.

Denboraldi honetan praktikan parte hartuko dugula adierazi dugu. Hori egiteko modu desberdinak daude, instituzioen beharren eta ezaugarrien arabera.

Gerta daiteke jada martxan dagoen proiektu batean sartu beharra izatea edo zuk zeuk zeurea garatu beharra izatea; bi aukera horiek egokitu daitezke, baina instituzioaren barnean beteko dituzun funtzioak instituzio horretan dituzun tutoreekin hitz egin ondoren zehaztuko dira, zentro honetan ardura izango duen saileko tutorearen aholkularitzarekin, jakina.

Mintegiaren bigarren bilera dagozkizuen erakundeetan parte hartu duzuen proiektuei buruzko informazioa trukatzeko izango da; zuen esperientziaren berri emateko eta zer moduz aritu zareten adierazteko nahiz eztabaidatu nahi dituzuen beste gai batzuk planteatzeko. Jaso dituzun oharretan oinarrituta, egoeraren berri ematen eta eztabaidatzen hasiko gara. Bilera hau Practicumaren erdialdera egingo da eta mintegi honen eta gainerakoen eguna eta ordua aurkezpen-bileran erabakiko dira.

Practicuma amaitu arte lehenago hasitako lanarekin jarraituko duzu eta taldeko gainerakoek egindako ekarpenak, eztabaidan sortu diren gaiak eta mintegian gai horiei buruz hartutako oharrak zurekin izango dituzu.

Hirugarren bileran bakoitzak ekarritakoari eta norberak bere proiektuan egindako proposamenei buruz hitz egiten eta eztabaidatzen jarraituko dugu. Praktika-aldiaren amaieran egingo da bilera hau.

Laugarren bilera eta azkena: ebaluazioa. Bilera honetan prozesu guztia ebaluatuko dugu. Dokumentu honetan ageri diren gidak erabil ditzakezu horretarako. Prozesuari buruz duzun iritzia uneoro kontuan izan beharko duzu denboraldi honetan. Guztien artean eztabaidatuko dugu. Parte hartuko duten pertsona guztiek beren iritzia adierazteko parada izatea lortu nahi dugu.

Aldi hau amaitzen denean, eta mintegiko taldean erabakitzen den datan, **txosten bat aurkeztuko duzu**, Practicumean izan duzun esperientzian bildu duzun guztia abiapuntutzat hartuta.

Garrantzi handia du txosten hori egiteak, gure prestakuntzaren esperientzia sistematizatzea, adieraztea eta zabaltzea eskatuko baitigu.

Txosten hau egiterakoan, hautatzen dugun narrazio-estiloaren arabera forma desberdina eman geniezaioke txostenari, baina, orientabide gisa, honako atal hauek kontuan hartzeko aholkua eman nahi dizugu:

1. **Sarrera** txiki bat, txostena osatuko duten puntu orokorrak bilduko dituen.

2. Atal honetan, lan egin dugun **gizarte eta hezkuntza-errealitatera hurbiltzen** saiatu behar dugu, berau kokatzeko eta hobeto ulertzeko. Bi gai garrantzitsu hauei buruz hitz egin genezake: lan-esparruari buruz eta erakundeari berari buruz.

Lehenengoari dagokionez, honako galdera hauek egin geniezazkioke geure buruari: lan egiten ari naizen eremu hori zer da? Zein ezaugarri ditu? Ezaugarri horiek emateko eta ondo ulertzeko, bertan egon garenean ikusi duguna, erakundeko profesionalak eman diguten informazioa, karreran zehar, ikasgaietan, hitzaldietan, mintegietan... jaso duguna izango dugu gidari. Edo horri buruz irakurri dugunak edo irakurtzen ari garenak ere lagun gaitzake. Argi eta xumeki eremu horretaz guk zer ulertzen dugun, lan egiteko zein modu erabiltzen diren eta zein zailtasun aurki genitzakeen azaltzea ere interesgarria izango da.

Bigarren gaiari, erakundeari, dagokionez, bere ezaugarriak zein diren eta zein programa garatzen dituen jakin nahi izango dugu. Zer-nolako erakundea den, antolamenduari dagokionez zein ezaugarri dituen, zein arazo dituen, beste erakundeekin nolako harremanak dituen –herrian bertan, eskualdean, nazioan eta nazioartean–, programa horien arteko koordinazioa nola gauzatzen duen... azal genezake.

Agiri honen amaieran, informazioa biltzeko orientabide gisa erabil ditzakezun gida batzuk dituzu.

3. Hirugarren atalean, **garatuko den programaren edo proiektuaren** deskribapena edo azterketa egin dezakezu. Horixe da, hain zuzen, *kasu-azterketa*, kasutzat zu zauden programa hori hartuta.

Nahiz zeuk egindako programa izan, nahiz lehendik zegoen programa batean sartu, iritsi da unea deskribatzeko eta, horretarako, honako alderdi hauek azalduko dituzu:

- a. Programaren ezaugarriak.
- b. Lanean diharduzun ingurunearen eta populazioaren azterketa.
- c. Programaren inplementazioaren deskribapena; horretarako, **tokian tokiko lanari buruzko oharren** bilketa erabiltzea komeni da, prozesua abiarazteari buruzko datuak eta jendearen erantzunari buruzkoak bildu ahal izateko. Horrek pixkana-pixkana balorazioa egiten eta, zenbaitetan, esku-hartzea berriro bideratzen lagunduko dizu.

4. **Bildutako datuen azterketa eta interpretazioa.**

Tokian tokiko lanari buruzko oharren bidez bildutako datuak asko izango dira eta, beraz, irakurri, ordenatu, oinarrizkoak diren gaiak bilatu, zure galderei emandako erantzunak bereizi eta horrelakoak egin beharko dituzu, gero, zure esperientziari buruzko ondorioak eta ideiak ateratzeko.

5. **Nire esperientziari buruzko gogoeta prestakuntzaren ikuspegitik.**

Atal honetan, prestakuntzaren esperientziaren balorazioa egiten ahalegindu ez ezik, gizarte honetan gizarte-hezitzaile zaren neurrian zure lanari buruz landu dituzun printzipioak eta ideiak azaltzen saiatuko zara.

Laburbilduz, hauexek dira bete beharreko zereginak:

1. Ikastetxean egiten den **mintegian** parte hartu.
2. **Kasu baten azterketa** egin, hau da, errealitateko parte-hartzaile aktibo gisa zuzauden programa horren azterketa egin.
3. Practicumean egindako lana adierazteko, Practicum honetan garatutako lanari buruz **txosten bat** egin, bertan lehen adierazitako atalak kontuan hartuko direlarik.

II. Tutoreen zeregina

Hezkuntza-prozesuak hezitzailea hezitzaile gisa desagertzea eta ikaslea ikaskuntza-prozesu aktibo eta kritikoetako benetako protagonista bihurtzea eskatzen du.

(Paulo Freire)

Esparru hauetako profesionalen nahiz Practicum honen ardura dugun Saitetako irakasleen zeregin orientatzailea, gure ustez, funtsezkoa izango da Gizarte Hezkuntzako lanbidera gehiago hurbiltzeko eta zeregin horretan sakontzeko. Gure ikuspuntu desberdinetatik, guztiok ahaleginduko gara aukeratu duzuen lanbidean sartzen laguntzen; eta, prestakuntza-prozesu honetan, elkarrizketan eta lankidetzan oinarrituta egin behar dugula hori uste dugu.

Horregatik, tutoretza honako helburu hauetara zuzendu behar dugu gure ustez:

- Lanbide-praktikaren azterketa eta gogoeta bultzatzea.
- Praktika hori gauzatzeko beharrezkoak diren iturri dokumentalei, pertsonalei eta abarri buruz orientabideak ematea.
- Mintegiaren esparruan, esku hartzeko edo lan egiteko beste eremu batzuk aukeratu dituzten ikaskideen artean esperientzien, bizipenen, sentimenduen eta abarren trukea eta konparazioa sustatzea.
- Egituratzten ari diren lanbide-ezagutza azaltzen laguntzea, sortzen diren hutsunean, galderak, arazoak etab. errazago antzemateko eta ezagutza hori hobetzen lagunduko duen ekintza-plana garatzeko.
- Zuen Practicumaren esperientziaren balorazioan parte hartzea, Practicum II egin duzuen erakundean duzuen tutorearekin batera.
- Erakundeko tutorearekin elkarlanean aritzea, lanbidearen errealitatean sartzeko prozesuaren jarraipena egiteko, komunikazio eta harreman sendoak izanez.

Halaber, lan egiten duzuen erakundeetan zuen tutore izango diren profesionalek honako funtzio hauek bete ditzaketela uste dugu.

- Erakundearen errealitatean sartzeko bidea erraztea –maila guztietan– eta berau ulertzen laguntzea.

- Egin behar dituzuen zereginak eta proiektuak aztertu eta abiarazteko behar dituzuen baliabideak eskuratzen eta erabiltzen laguntzea.

- Erakundeak antolamenduaren eta hezkuntzaren esparruan dituen ezaugarriei buruz orientabideak ematea, lehenengo zatian esan dugunaren ildotik, alderdi horiek lanbideko zereginak ondo ulertzeko oinarri-oinarrizkoak direla aintzat hartuta.

- Eguneroko jardunaren plangintzan eta balorazioan aholkuak ematea eta, erakundeak berak dituen beharrak eta zuen aukerak eta interesak kontuan hartuta, egin beharreko zereginak iradoki eta beroriei buruzko orientabideak ematea.

- Zuen eguneroko jardunaren gogoeta-prozesuan eta azterketan laguntzea.

- Zuen Practicumaren esperientziaren balorazioan parte hartzea, zentro horretan duzuen tutorearekin batera.

Tutoreekin hitz eginez eta zalantzak, beldurrak, sentimenduak, lorpenak, aurkikuntzak... adieraziz, aldi horretan zurekin elkarlanean aritzeko aukera izango dutela pentsatu behar duzu. Baina kontuan hartu prozesu horretan laguntzen ari zaizkizun pertsonen, taldeen, erakundeen... ekarpenak egin diezazkiekezkula zuk ere, zure lanaren, ekimenaren eta interesaren bitartez.

III. Practicumaren ebaluazioa

- Ebaluazioa prozesu gisa
- Practicum II ikasgaiaren ebaluazioa.

“Ebaluazio-prozesuetan berdintasunez parte hartzeko, pertsona orok elkarrizketaren bitartez bere kultura islatzeko ahotsa izan behar du...”

(CREA)

“...gizakiak gara, mundua eta gure izatea ebaluatzen dugun izaki garelako”

(O. Proppe)

Ebaluazioa garrantzi handiko prozesua dela uste dugu, baina ikastea eta hobetzea izango da beti ebaluazioa egiterakoan kontuan hartu beharreko ikuspegia.

Ebaluazioaren bidez, prozesu honetan pate hartzen dugun pertsona guztiok izan diren lorpenak, aukerak, hutsuneak eta zailtasunak ezagutzeko eta sakontzeko aukera izango dugu. Honako esparru hauetakoak izango dira lorpen, aukera, hutsune eta zailtasun horiek guztiak:

- Lan-proposamen honetan sortutakoak.
- Tutoretza-lanean izan direnak.
- Zuek guztiok prestakuntza-aldi honetan izan duzuen esku-hartzea.

Eta hori guztia pixkana-pixkana jada Practicumean planteatutakoa lortzeko, hots: profesional gisa geure burua eta tutoretza-taldea, biziko dugun gizarte-errealitatea eta abiaraziko ditugun lan-proposamenak hobeto ezagutzeko. Alderdi horietan zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta aukera gehiago izango ditugu gauzak aldatzeko eta, ustez behintzat, profesional garen neurrian gure esku-hartzeak hobetzeko.

Jakina, ebaluatzeko behar-beharrezkoak dira ebaluazio-irizpideak eta tresnak. Ondoren, labur-labur azalduko dizkizuegu:

Ikasleak izan duen prozesua eta errendimendua ebaluatzeko, ondoko irizpide hauek izango ditugu kontuan:

- Lan-bilerei begira, jaso dituzun oharren lanketa.
- Gizarteko errealitateari buruz egiten dituzun gogoetetan eta erakundean egiten duzun lanean kontuan hartzea lan-bileretan sortutako ekarpenak.
- Iturri osagarriak erabiliz sortu diren beste gai batzuen erabilera.
- Gizarte Hezkuntzaren esparru honekin harremanak izan dituzunean izan duzun harremana, parte-hartzea, ekimena eta lankidetzeta.

– Egingo duzun lan idatzian egingo duzun azterketaren eta gogoetaren sakontasuna.

– Aurreko irizpideetan lortu duzun bilakaera-maila.

Ondorengo tresna hauek erabiliko ditugu:

– Mintegiaren prozesuari buruz ikasleek eta irakasleek bildutako datuak.

– Practicumeko esku-hartze prozesuari buruzko txostena.

– Zure autoebaluazioa, ondo arrazoituta.

– Erakundeko arduradun edo tutoreak igorritakoa.

– Unibertsitateko irakasleak ikasle bakoitzari buruz egindako txostena.

Lan-proposamena eta bai Unibertsitateko eta bai lan egin duzun erakundeko tutoretza-prozesua ebaluatzeko, parte hartzen dugun guztiok ondorengo irizpideak kontuan izan eta erabiliko ditugu:

– Dokumentu honetan ageri diren tresnei eta gidei buruzko orientabideen eta erabileraren argitasuna.

– Lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta, proposamenaren egokitasuna.

– Mintegietan sortutako gogoetarako dinamika.

– Berorietan emandako jarraibideak eta adierazpenak.

– Erakundeak egindako harrera eta berau ezagutzeko eta bertan integratzeko nahiz profesional gisa zuen esku-hartze prozesua bultzatzeko emandako laguntza.

– Prozesu honetan bete duten lekuari buruz Unibertsitateko tutoreek egindako autoebaluazioa kontuan hartuko da.

Ebaluazio-uneei dagokienez, Practicum I ikasgaiari azaldu genuena gogoratuko dugu:

Lan-proposamenaren oinarri diren ardatz-ideiekin bat etortzen saiatuz, ebaluazio-sistemari buruz egindako aukera prozesuaren ebaluazioa izan da eta prozesu horretan funtsezkoa izango da ikasleengan guztiok sumatzen dugun bilakaera kontuan hartzea. Horrez gain, bereziki ebaluazioa aztertzeko pentsatutako mintegi bat dugu. Mintegi hori egiteko eguna talde bakoitzak zehaztuko du.

Ikaslearen azken kalifikazioari dagokionez:

Prestakuntza-aldi hau amaitzen dutenean, ahal den modurik zehatzenean, ikasleek prestakuntza-fase honetan gizarte-hezitzaile gisa lortu duten gaitasuna islatuko duen kalifikazioa emango dugu.

Ebaluazioan prozesu horretan parte hartzen dugun guztion iritziak eta ekarpenak kontuan izan behar direla esan baldin badugu, beste hainbeste esango dugu kalifikazioari dagokionez ere. Beraz, kalifikazioaren terminoak negoziatu egin beharko dira.

IV. Practicum II ikasgairako tresna baliagarriak: behaketarako eta oharrak jasotzeko gidak.

- Behaketarako eta oharrak jasotzeko gida-tresnak emateko arrazoia eta zentzua.
- Zure erakundea eta lan-esparrua behatzeko gida.
- Zure gogoetak biltzeko gida.
- Zure autoebaluaziorako gida.
- Unibertsitate Eskolan eta erakundean lan-proposamena eta tutoretza ebaluatzeko gida.

“Hay personas incapaces para mirar en torno suyo, porque diagnostican de antemano. No saben dar permiso a lo mirado para que se desarrolle y exista libremente”

“Para no sentir empacho y que brote la elocuencia, no es saber hablar de lo que hace falta, sino tener algo de qué hablar y saber de eso -de lo que sea- lo que no sabe otro. Cada cual que responda de lo suyo, que atienda a sus juego, a su cuento”.

(Carmen Martin Gaité)

"Norberak dakienarengandik urruntzea norberaren ezagutzari buruz gogoeta egin ahal izateko"; hori egin ahal izateko, besteak beste, ondorengo tresna behar da: hizkuntza idatzia; ariketa hori egiteko beharrezkoa da. Bestela, zaila izango litzateke interesatzen zaizkigun gauzetan pentsatzea eta gauza horiek kontatzea. Ez genituzke gogoratuko.

Beraz, idazketak ez du inoiz oztopo izan behar gure zereginetan, aitzitik, tresna baliagarria izan behar du. "Egiteko aukera" eskaini behar digu. Ildo beretik, formari dagozkion alderdiak ez gaituzte bereziki arduratuko, funtzionaltasunari dagokionean baino ez; hau da, lortu nahi dugun helburua lortzeko egokia izan behar du.

Horregatik, zure oroimena sustatzeko, oharrak hartzeko sistema bat behar duzu. Horrela lortuko duzu taldean azaldu nahi duzuna gogoratzea eta ondo landutako materiala izatea.

Oharrak jasotzeko koaderno bat –koaderno hau egokia izango da horretarako – eta boligrafo bat beharko dituzu eta Practicumak irauten duen bitartean zurekin izango dituzu beti; dokumentuak eta bileretara eramaten duzun materiala gordetzeko karpeta bat ere beharko duzu.

Ondoren dituzun "giden" helburua lanerako sistema bat eskaintzea da. Zuk zeuk asmatutako edo zuretzat egokiagoa den beste edozein eskemak ere balio dezake. Bestalde, nahi izanez gero gida hauen zati bat erabil dezakezu edo, bestela, hitzez hitz jarrai ditzakezu. Halaber, eskainitako eredu honetan agertzen ez bada ere, egoki iruditzen zaizuna gehitu dezakezu, noski. Forma oztopoa bada, "formaren" arazoaz ahazteko laguntza baino ez dira.

Bilaketan laguntzeko helburua dute eta informazioaz, kontatzeaz eta gogoeta egiteaz hitz egiten dugunean zehazki zer esan nahi dugun argitu nahi dute, formula zehatzak emanez.

Batzuk jada joan den urtean erabili zenituzten, Practicum I ikasgaietan; funtsean berdinak dira, baina alderdi berri batzuk eta iaz egindako iradokizun batzuk bildu ditugu. Formatua bere horretan utzi dugu, honako dokumentu hau zuen lan-koadernoan dela uste baitugu, eta idazteko edo oharrak jasotzeko erabili ahal izango duzue.

I. GIZARTE HEZKUNTZAKO EREMU DESBERDINETAKO DATUEN BILKETARAKO BEHAKETA-GIDA.

Gida honen xedea ikaslea gizarteko errealitatearekin harremanetan dagoen bitartean orientatzea da, errealitateari berari buruz, bertan lan egiteko moduari buruz, sortzen diren zailtasunei buruz, zailtasun horiek gainditzeko moduei buruz... datuak biltzeko. Beste edozein gidak egiten duen moduan, honek ere ez ditu Gizarte Hezkuntzaren esparruan lan-errealitate bat osa dezaketen alderdi guztiak biltzen; datu horiek biltzeko eta lan-esparru horren behaketa egiteko bidea adierazten du, ezin dugu hori ahaztu. Horregatik, ideiak ematen dizkiguten edo lanbide-eremu honetan gizarte-hezitzaileak eta guk geuk betetzen dugun funtzioari buruz gogoeta egitera eramaten gaituzten beste adierazle batzuk ere kontuan izatea (dokumentu idatziak, liburuxkak, lagunarteko iritzi-aldaketak, zure oharrak, iritzi pertsonalak...) komeni zaizu. Gogoan izan, baita ere, gizarte-inguruz datuak biltzeko ez dagoela horri buruz galdetzea baino gauza hoberik eta galdera horiek zehazteko ondorengo gida erabil dezakezu, aztertu beharreko esparruen erreferentzia gisa.

LAN-ESPARRUAREN EZAUGARRIAK:

• Instituzioa/Elkartea/Programa/Erakundea:

– Nolakoa da lan-esparru hau (nori zuzenduta dago, zein xede edo helburu ditu, zein lan egiten dute hezitzaileek) eta zuzentzen zaien pertsonekin nola lan egiten du (zein arreta eskaintzen zaie)?

– Esparru honetan parte hartzen duten profesionalak dituzten trebetasunak.

– Esparru honetako profesionalen lan egiteko modua (profesionalen arteko harremanak) eta beste esparru edo erakunde batzuetako profesionalekin dituzten harremanak.

– Inguruarekin duten harremana: komunitatea. Zer-nolako harremana dute –urruntasuna, lankidetzak– eta harreman hori zein mailatan gertatzen da?

– Beste erakunde edo elkarte batzuekin dituzten harremanak nazioartean. Europako programetan parte hartzen al du? Nazioarteko sareetako partaide al da?

– Erakundearen barnean funtzionatzen duten egiturak eta egitura horien antolamendua –hierarkia, koordinazioa, kudeatzeko moduak, komunikazio-prozesuak, barne-arautegiak...–.

• **HARTZAILEAK:** *ezaugarri psikologikoak (adina, sexua, hizkuntza, jatorri sozial eta geografikoa...) eta berezitasunak.*

– Hartzaileek prestakuntza-ekintzan duten parte-hartzea. Programan/ekintzan duten inplikazio-maila, parte hartzeko bideak, ordezkatzeko moduak, uneak...

• **BEHARREZKO BALIABIDEAK ETA ESKURA DITUGUNAK:**

– Baliabide ekonomikoak (diru-laguntzak...), pertsonalak, eskualdekoak... lortzeko moduak.

– Eskura ditugun baliabide espazialen, materialen, ekonomikoen eta pertsonalen ezaugarriak. Horien zailtasunak eta aukerak lanerako dinamika-motaren arabera.

– Hedabideak: aldizkariak, liburuak, zirkularrak, iragarkiak... Komunikabideen erabilera (prentsa, irratia, telebista, zinea, Internet...)

• **ESKU-HARTZEAK PLANIFIKATZEKO, MARTXAN JARTZEKO ETA EBALUATZEKO PROZESUAK:**

– Hartzaileekin lotura zuzenik ez duten lan-denboren eta jardueren (prestakuntza, koordinazioa...) erabilera.

– Jarduerak prestatzeko moduak (taldean, bakarka, malgutasun-mailak, inguruarekiko harremana...).

– Hartzaileekiko harremana: elkarreaginaren izaera, iraupena (eguneroko nahiz asteroko ordutegiak, urteko egutegia), mota (gidatutakoa, gidatu gabea), diziplina, arauen ezarpena, funtzionamendu orokorreko irizpideak.

– Esku-hartze prozesura hurbiltzea: jardueran bete behar diren zereginak eta rolak definitzeko kontuan izaten diren ezaugarri metodologikoak eta irizpideak.

– Ebaluazio-sistema: ebaluatzen diren alderdiak (prozesua, antolamenduzko zereginak, erakundearen dinamika...), prozesuaren ezaugarriak, erabilitako teknikak, ebaluazio-uneak (diagnosia, jarraipena, azken balorazioak), txostenen aurkezpena.

• **PROFESIONALAK AUKERATZEKO ETA PRESTATZEKO BIDEAK:**

– Langileak, profesionalak eta boluntarioak aukeratzeko erabiltzen diren irizpideak. Horiek ezartzeko eta prestatzeko arduradunak.

– Nola garatzen da lan-esparru honetan lan egiten duten profesionalen etengabeko prestakuntza?

– Nola garatzen dira boluntarioak prestatzeko sistemak (finantzaketa, edukia, arduradunak, prestakuntza-aldiak, egiten duten lanaren jarraipena...)?

- ***IKERKETA-PROZESUAK LAN-ESPARRUAN:***

- Ikertzen ari diren elementuak edo alderdiak. Lagungarri zaizkien ikerketak.

II. ZURE GOGOETAK BILTZEKO GIDA. ADIBIDEZ:

Gustatu zaidana. Gustatu ez zaidana. Harritu nauena. Zer pentsatu ez nekiela utzi nauena. Kezkatu nauena. Zalantzak eta galderak sortu dizkidana. Eztabaidatu nahiko nukeena. Informazio gehiago lortzea nahi dudana. Nola sentitu naiz.....-ean. Interpretatzen ez dakidana.-(r)i buruzko iritzia. ikasi beharko nukeela uste dut. bururatu zait. egitea erraza/zaila da. Orain ulertzen dut zergatik Hitz egin beharra dut-(r)i buruz. interesgarria iruditu zait.-(r)i buruzko artikulu interesgarri bat aurkitu dut. egilearen libururen bat irakurri nahiko nuke. Telebistan ikusi dut eta pentsatzen dut. Irratian entzun dut eta pentsatzen dut. esan didate. berriro egin nahi nuke. Prestatu dudana izan da. Taldean nire parte hartzea..... Nola sentitzen naizen. ikusi dut. zaila izan da. Ez nuen uste nik..... Hartzaileekin izan dudana harremana da. Ez nekien zer egin-ean. Eman dudana erantzuna izan da. Egin behar dudana lanaren aurrean ditudan aukerak direla uste dut, zeren.....

.....

III. IKASLEEN AUTOEBALUAZIORAKO TRESNA

Tresna honen xedea hezitzailegai gisa Gizarte Hezkuntzaren esparruarekin izan duzun harremanean egin duzun prozesuari buruzko iritzia jasotzea da. Dena dela, tresna hau hasieratik erabil dezakezu, zure prozesua behatzeko eta lanerako jarraibideak zuzentzeko edo lan-ohiturak finkatzeko. Beraz, egiten duzuna eta lan egiteko modua berrikusteko eta berriro planteatzeko lagungarri izango zaizu hemen eskaintzen dizugun tresna hau eta, bestalde, ebaluazio-bileran aktiboki parte hartzen laguntzeko ere baliagarria izango da..

1. Ondorengo adierazpenei dagokienez, zein iritzi duzu gizarteko errealitatearekin izan duzun harremanari buruz? (Idatzi adierazpen bakoitzari buruz pentsatzen duzuna):

- Bizi izan dudan errealitateari buruz datuak jasotzeko dudan ohitura.
- Datuak egunero sistematizatzeko eta horiei buruz hausnarketa egiteko izan dudan diziplina.
- Lanbidearen errealitatea gehiago ezagutzeko lagungarri izan daitezkeen galderen prestakuntza.
- Bildutako materiala antolatzea eta prestatzea, besteen aurrean aurkezteko eta mintegietan eztabaidatzeko.
- Mintegietan gizarteko beste errealitate batzuei buruzko eta Gizarte Hezkuntzaren esparruaren barnean lan egiteko beste modu batzuei buruzko datuen bilketa.
- Mintegietan izan dudan parte-hartzea, nire ideiak, gogoetak, galderak eta/edo zalantzak adieraziz.
- Gizarteko praktikari buruzko ezagutzaren sistematizaziorako ikaskideekin izandako lankidetzak.
- Ikaskideek mintegietan aurkeztu dituzten ideiei buruzko gogoeta eta ideia horien erabilera, nire errealitatea eta “besteena” hobeto ulertzeko.
- Mintegietan ateratako ideiak eta egindako ekarpenak idatziz eta ondo antolatuta jasotzeko dudan ohitura.
- Iturri osagarrietatik (komunikabideak, testuak, lagunarteko elkarrizketak...) sortutako beste gai batzuen erabilera.
- Erakundeko erabiltzaileekin, profesionalekin eta tutorearekin eta Unibertsitateko tutorearekin izan dudan harremana.
- Bilera eta mintegietan izandako parte-hartzearen konpromiso-maila.

– Ekimenez jokatzeko nahiz lanbidearen ezagutza praktikoa eta hezkuntza-errealitate horretan sartzeko bidea erraztuko duten proposamenak egiteko izan ditudan aukerak (gaitasuna).

– Ekintzak edo zereginak diseinatu eta gauzatzekoan erakutsi dudana interesa.

2. Praktika-aldi honetan honela sentitu naiz:

3. Praktika-aldi honetan gizarte-hezitzaile gisa egingo dudana erraztuko duen hainbat ezaugarri/gaitasun dudala ikusi dut:

4. Prestakuntza-prozesuan ondorengo zailtasunak/hutsuneak ditudala ohartu naiz:

5. Nire zailtasunak kontuan izanik, ondorengoak egitea/sakontzea gustatuko litzaidake:

6. Oro har, prestakuntza-prozesu honen bidez (errealitatearekin harremana, banakako eta taldeko gogoeta) ondorengoak ikasi/aurkitu ditut:

7. Ondorengo alderdi hauek aurreko galderetan kontuan izan ez direla uste dut eta horiek adieraztea garrantzitsua iruditzen zait, egin dudana argitzen baitute; honako alderdi hauek dira:

8. Egin dudana prozesua erreferente gisa izanik, nire buruari ematen diodan kalifikazioa ondorengoa da (1etik 10era bitarteko puntuazioa jarri ondorengo hutsunean):_____

IV. BAI UNIBERTSITATE ESKOLAN ETA BAI ERAKUNDEAN EGINDEN LAN-PROPOSAMENA ETA TUTORETZA-PROZESUA EBALUATZEKO TRESNA

Tresna honen xedea Practicum II ikasgaiaren ikuspegi orokorrari buruz, lan-proposamenari eta horren garapenari buruz eta gizarteko errealitatean lan egiteko moduarekin izan duzun harremanari buruz duzun iritzia jasotzea da. Garrantzitsua iruditzen zaizun guztia adierazi behar duzu, hala, prestakuntza-aldi honen ikuspegi orokorra hobetzeko elementuak sartzeko aukera izan dezagun.

A. IDATZITAKO LAN-PROPOSAMENARI BURUZ:

1. Zer deritzozu Practicum II ikasgaiarako egindako lan-proposamenari? Eman zure iritzia ondoko alderdi hauei buruz:

- Prestakuntza-aldi honetarako ezarritako helburuen eta egituratu den prozesuaren proposamenaren arteko koherentzia.
- Practicum II ikasgai honetako jarduera desberdinak garatzeko ezarritako denboraren banaketa.
- Gogoetaren, arrazoiketaren eta “beste batzuekin” egindako elkarrizketaren garapena ahalbidetzeko proposatutako jardueren ahalmena.
- Emandako dokumentuaren kalitatea eta interes praktikoa, behaketarako, gogoetarako, lankidetzarako eta ebaluaziorako laguntza dela kontuan hartuta.
- Mintegiaren egituraketa eta bertako lan-sistema.
- Prestakuntzako elementu gisa, gure lanbide-praktikari buruz informazioa biltzeko, gogoeta egiteko eta azterketa kritikoa egiteko txosten bat egiteko proposamena.
- Proposatutako ebaluazio-sistema.

2. Orain arte ondorengo alderdiak kontuan izan ez direla uste dut eta garrantzitsua iruditzen zait hemen agertzea. Alderdi horiek ondorengoak dira:

B. MINTEGIETAN EGINDAKO LANARI BURUZ ETA SAIO HORIETAN ESKAINI ZAIDAN TUTORETZA-LANARI BURUZ:

1. Zure tutorearekin eta ikaskideekin egindako mintegien garapenari buruz zein iritzi duzu? (Adierazi ondoko alderdi hauei buruz duzun iritzia):

- Proposamenari buruz emandako azalpena, hobeto ulertzeko.
- Prozesuan zehar eskaini diren orientabideak.
- Mintegietan izandako giroa eta gogoetan oinarritutako elkarrizketa.
- Practicumerako egin beharreko zereginen buruzko orientabidea eta jarraipena.
- Pertsona guztien parte-hartze maila.
- Mintegien dinamizazioa.
- Mintegietan teoriaren eta praktikaren artean egindako lotura.
- Mintegien denbora eta iraupena.
- Gizarte-hezitzailearen lan-eremuari buruzko ezagutza praktikoa konparatzeko eta eraikitzeke mintegietan egindako lana.

2. Nire ustez, orain arte ez dira ondorengo alderdiak aipatu eta, beraz, garrantzitsua iruditzen zait hemen azaltzea. Alderdi horiek ondorengoak dira:

C. EZAGUTU DUDAN ERREALITATEARI ETA BERTAN ESKAINI Z AidAN TUTORETZARI DAGOKIONEZ:

1. Zer iruditu zaizu gizarte-hezitzailearen lan-eremu batekin izan duzun harremana eta bertan izan duzun tutoretza? (Adierazi ondoko alderdi hauei buruz duzun iritzia):

- Lanean jardun duzun erakundeko arduradunen harrera-prozesuaren unea eta ezaugarriak.
- Erakundeari buruzko informazioa biltzeko bertara joan zarenean erakunde horretan egindako harreraren ezaugarriak.
- Praktika-aldi horretan sortu zaizkizun zailtasunei konponbidea emateko erakundean tutoreak edo arduradunak eskaini dizun laguntza.
- Erakundeko arduradunarekin izandako harremana eta elkarrizketa, praktika-aldi horri buruzko azterketa kritikoa eta gogoeta bultzatzeko.

2. Nire ustez, orain arte ez dira ondorengo alderdiak aipatu eta, beraz, garrantzitsua iruditzen zait hemen azaltzea. Alderdi horiek ondorengoak dira:

*Eranskina: Practicumaren lan-
proposamen orokorraren oinarri diren
gogoeta eta irizpideen laburpena.*

“Gogoetari buruz”, irakaskuntzan eta Gizarte Hezkuntzaren praktikan egiten den hizkuntzaren erabilerari buruz eta tutoretzari buruz.

Azken azterketa eta hurbilketa teorikoen arabera, hizkuntzaren erabilera desberdinak testuinguru zehatz batean komunikatzeko beharrezkoak ditugunean ikasten ditugu, testuinguru horretan hizkuntza erabiltzeko eredu bat dagoenean hain zuzen ere.

Gainera, idazketari buruzko literaturan gero eta gehiagok azpimarratzen dute diskurtsoaren funtzioa idatziaren euskarri gisa edo idatziaren aurreko gisa, eta hizkuntzaren izaera instrumentala ere nabarmentzen dute.

Bestalde, irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuei buruzko hurbilketa teorikoak ere aurkituko ditugu, eta prozesu horiek komunikazio-prozesu gisa ulertzen dituzten hezkuntza-prozesuei buruzkoak ere bai, komunikazio horretan, guztion artean, esanahiak eraikitzen edo berreraikitzen direlarik.

Erreferente horietan oinarrituta, gogoeta egiteko gaitasuna eta gogoeta hori idazteko gaitasuna bereizi behar dira argi eta garbi eta, bestalde, informazioa lortzeko gaitasuna eta ezagutu eta ikasi dena kontatzeko gaitasuna ere bereizi behar dira. Erregistro idatzia ahozko errejistroaren oinarria da eta, halaber, ahozko errejistroa errejistro idatziaren osagarri da.

Bestalde, gizarte-hezitzaileek egingo duten ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren erabileraz pentsatzea interesgarria izango da eta Practicumaren helburuak lortzeko baliozko erabilerak zein diren erabaki beharko da.

Hala, bada, gizarte-hezitzaileek beren praktikan egingo duten hizkuntzaren erabileretako bat beren esperientzien ahozko kontaketa izango da, informazioa trukatu dute, proposamenak eztabaidatu dituzte, aukeratutako erakundearekin edo beste profesional eta erakunde batzuekin egingo dituzten bileretan beren ideiak aurkeztuko dituzte etab. Erabilera horren bitartez, beraz, eraikiko dugu ezagutza profesionala.

Horren ondorioz, errejistro idatzia ideiak antolatzeko eta prestatzeko tresna gisa erabiltzen da, baina betiere horien ahozko erabileraren oinarri izango dela kontuan hartuta, eta ahozko erabilera hori, bere aldetik, erabilera idatziaren oinarria da, kontakizun formalizatuen bidez zehazten baita, egoeraren azterketaren eta txostenaren bidez, adibidez. Horixe da egin dugun aukeraketarik garrantzitsuen. Justifikatuta dagoela uste dugu, izan ere, ezagutza profesionala elkarlanean oinarritzen baita: azken batean, guztion gogoetaren emaitza da.

Orain arte adierazitakoarekin bat etorritz, komunikazio-funtzioari lehentasuna emango dioten testuinguruak sortzea garrantzitsua dela uste dugu: ikasleei hitza emango zaie eta komunikatzeko errejistro pertsonalak lantzeko eta sistematizatzeko, horren bidez komunikatzeko eta "beste batzuekin batera" eraikitzeke aukera emango zaie. Horregatik, mintegiek garrantzi handia dute. Hori aurrera eraman ahal izateko, errealitateari adi-adi begiratzen eta horri buruzko oharrak jasotzen, informazioa antolatzen, bere ideiak adierazten eta hizkuntza idatzia ahozko komunikaziorako tresna gisa erabiltzen lagunduko dieten ereduak ("gidak") eskaintzen ditugu.

Tutoretza ikasleak bere burua egituratzeko beharrezkoa duen laguntza dela kontuan izaten badugu, beste laguntza batzuk eskaintzea planteatu dugu. Lehenik eta behin, testuinguru bat emango dugu eta testuinguru horretan pertsonen arteko trukea eta komunikazioa lanbideari buruzko ezagutza eraikitzeke oinarri izango dira (tutoreekin komunikazioa eta mintegiak), horretarako, guztion iritziak adierazteke eta eztabaidatzeko giro lasaia sustatuz. Bigarrenik, pentsatzen laguntzea eta pentsatzera bultzatzea: taldeko lana denak gustura sentitzeko moduan prestatuko da; entzun egingo diegu; galderak egingo ditugu; informazioa, batez ere interpretazio teorikoei buruzkoa, eskainiko dugu; zalantzak adieraziko ditugu; jarrerak eta iritziak eztabaidatuko ditugu... Azkenik, gidatzeko tresnak eskainiko zaizkie, prozesu horretan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Azken batean, proposamen hau guztia gizarteko errealitateak hobeto ezagutzen laguntzeko pentsatuta dago. *"Herri arrotz bat aztertzen ari den ikertzaile bat berehala ohartuko da jendea ulertzen duen gauzez hitz egiten eta ulertzen dituen gauzak egiten ari dela, berak ezer ez ulertu arren. Pertsona batek keinu bat egingo du eta beste guztiak barrez hasiko dira. Besteek keinu horren esanahia ulertu dute, baina ikertzaileak ez. Ikertzailea gauza horiek beste pertsonekin batera bizitzen hasten denean, orduan hasiko da benetan ulertzen"* (Santos Guerra, M. A., 1990: 47). Beraz, gure helburua ikasleak "benetan ulertzen hastea" da.

Hori hala den ala ez ebaluazioari buruzko eztabaidak argitu beharko du.

Oharren liburua